



**"Argizaiola" desagertu da.** Juan Jose Mendizabalen oroimenean eta ekimen herritar baten bitartez, Gotzon Huegunek egindako "Argizaiola" eskultura Atsokarren zegoen kokatua eta iaizko ekainean jarri zen berriro ere bere lekuan eraberritze lan batzuen ondoren. "Argizaiola" duela 18 urte zendu zen Juan Jose Mendizabalen oroimenean eta beregan pertsonifikatzen den boluntarioen lanari eskainia dago. Bera, Danok Kide elkarte lehendakaria izan zen eta bere urte askotako kooperazio lana aitortu nahi izan zuten herritarrek eskultura honekin. Udalak desagertu berri eman nahi izan zuen asteazkenean eta bide batez, herritarren laguntza eskatzen du hau berreskuratu ahal izateko eta gertaera honen inguruan informazioaren bat izanez gero, Udaltzaingora jotzea eskatzen da. Udaletik azaldu dutenez, herritar batek eman zuen desagertu berri, kirola egitera irten eta faltan bota zuen. Udala saiatu da honen berri izaten baina lan horretan herritarren parte hartzea beharrezkoa du.

### 3 PSE-EE

#### Kooperazioan pauso eza eta kudeaketa eskasa salatu ditu

Lasarte-Oriako PSE-EEk bere aldirik aurkezpena aitzaki harturik, Bildu, EA) eta LOHPk kooperazio arloko aferari irtenbiderik emateko asmorik ez duela salatu du, ez baitute PSE-EE salatu. Bestetik, Gobernu eta koalizio alderdiek herritarren oinarriko beharrak asetzen ez dituztela ere azpimarratu du.

### 4 DANTZA

#### Dantza garaikideaz gozatzeko aukera urtean zehar

Lasarte-Oria dantzan ekimena ri esker dantza Euskal Herriko dantza zirkuituko hiru ikuskizun ikusteko aukera izango da gure herrian. Lehengoa, martxoaren 15ean, Asier Zabaletak zuzendutako "N.A.N" izango da. Uztailean Kukairen "Gela-jauziak" eta urrian "Silencio" lanetaz gozatu ahalko da.



### 5 GIZARTEA

#### Emakumearen eguna dela eta ekintza sorta

Emakumearen eguna dela eta herrian antolatutako egitarauaren baitako lehenengo ekintza egin zen bart Villa Mirentxun. Honetan abortuaren legearen aurreproiektuaren inguruan eztabaidatzeko aukera izan zuten herritarrek. Udalak bere aldetik, adierazpen instituzionala egin du.

**ELECTRICIDAD ARREGUI**  
www.electricidadarregui.com

**ETORRI GURE  
ESKAITZA BEREZIAK  
IKUSTERA!**

12 hilabete interesik gabe  
**TAE 0%**

**299€**

**479€**

**399€**

**469€**

**349€**

**479€**

Kale Nagusia 39 • LASARTE-ORIA  
Tel.: 943 361080 • Tel./ Faxe: 943 372521

Neure kabuz



Asier Odriozola

Urteko aukera

Urtean barrena nor bere bidean joaten da gutako bakoitza. Lana duena ohiko lan-martxan, umeak dituen haiek sortzen duten festa giroan eta oro har denok, dela errutina betean, dela ihesbide gutxi dituen jardunean.

Eta hala izaten da eguna joan, eguna etorri, astea estreinatu, astea agurtu, hilabeteen hegaldi amaigabea.

Horregatik estimatu izan dut beti, eta uste dut horregatik maite duela askok eta askok, ihauterialdia. Aipatutako guzti hori hankaz gora jartzen duen ospakizuna izaten delako, ezarritakoa hausten duelako eta arategi, legedi, ohitura eta txukunkeria guzti barre egiten delako ihauterietako jaiak.

Elizkoi denak ez du seguru asko lekaime edo fraide jantzirik hartuko, trufa egiten ari zaio-lakoan elizari. Bai ordea erakunde horren hatzaparrari batera atxikimendurik ez dionak. Botere izan delako mendeetan zehar eta gaur egun, sutan kiskali arterainoko heriotza ezartzeko ahalmenik ez duen garaian, harenganako mendeku txikiak burutu daitezkeelako.

Eliza ez da adibide bat beste-rik ordea. Berdin gertatzen da politikariek, botere ekonomikoarekin edota guardia zibilarekin. Trufa, iseka, txantxa eragiten dute herritarren adimenean eta adimena bera hori adierazteko ahaleginean hasten da, makinaria oso bat helburu hori heltzeko asmatan.

Ariketa alai, harrigarri eta burutsu horren adibiderik onena Tolosa da zalantzarik gabe baina Gora Lasarte!! Ze dedioro, Oken-do aldean txaloka hasteko moduko mozorroak bildu ziren eta! Tartearen Zakilibilly taldekoe-nak. Etxera ari naiz begira bai, halaxe da.

Zorion agurrak



Lur

Zorionak maitia, 8 muxu potolo gurasoen partetik.



Iker eta Jose Antonio

Zorionak familiaren partetik! Mutilak! Milioi bat muxu bioi.



Manolo

Zorionak Manolo!! Martxoaren 11ean zure urtebetetzea da. Muxu haundi bat etxekoan partetik.



Oier

ZORIONAK! bost txokolatzeko muxu, Enaution-amon eta familiaren partetik, ondo pasa zure urtebetetzean bihotza.



Eneritz

Zorionak bihotza!! Zazpi muxu handi familiaren partetik. Oso ondo pasa gaurko eguna. Asko maite zaitugu.



Oier

Zorionak, pottoko! Jadanik zazpi urte zoragarri zurekin! Unax, Maddi, amatxo eta aitatxo.



Oihane

Zorionak polita! 8 muxu handi gure kuttunarentzat aita, ama eta ltxasoren partetik.

Zorion agurrak bidaltzeko 943 36 68 58, txintxarri@txintxarri.info edo txintxarri.info web orrialdeko formularioa erabili dezakezue.

Heriotzak Jaiotzak

Jaiotzak

- Amets Vilchez Intxausti, martxoaren 1ean.
- Ibai Sanchez Martinez, otsailaren 28an.
- Maddi Alkorta Gastearena, otsailaren 27an.

Heriotzak

- Lucas Zamora Vecino, martxoaren 2an, 77 urte zituela.
- Juanita Sarasola Roteta, martxoaren 1ean, 88 urte zituela.
- Andoni Moreno Pollos, martxoaren 1ean, 19 hilabete zituela.

Farmazia Goardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

Ostirala, 07	De Miguel, Kale Nagusia 32	943 371151
Larunbata, 08	Orue, Jaizkibel plaza 2	943 362652
Igandea, 09	Orue, Jaizkibel plaza 2	943 362652
Astelehena, 10	Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea	943 361774
Asteartea, 11	Gil, Kale Nagusia 24	943 361529
Asteazkena, 12	Acha-Orbea, Hipodromo et. 6	943 363549
Osteguna, 13	Urbistondo, San Frantzisko 1	943 366567

**GAUEKOAK: 22:00-09:00, egunero**  
Aldabe, Perkaiztegi 8,  
Hernani, Tel.: 943 336 022

Azoka txikia

Eskaintza inmobiliarioak

- Motor batentzako apartakalea alokatzen da erdigunean, elizaren ondoan. Telefonoa: 649526766.
- Lasarte-Orian pisu konpartitu batean gela alokatzen da. 250 euro hilabetean. Erdigunean. Harremanetarako, 600 612 085.

Salerosketak

- ASUS TF101 tableta salgai. Teklatua duen tableta da. 16Gb. 1024mg RAM. HDMI eta USB. Androidekin funtzionatzen du. 635.20.53.93
- Izozkailu bertikala saltzen da 200 eurotan. 6 konpartimetu ditu eta Ecron markakoa da. 2011 leian erositakoa da eta oso egoera onean dago. Rifa 637234705.

Lan-eskaria

- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egin, haurrek edo pertsona adinduak zaintzeko. Interna,

externa edo orduka. Esperientzia du. Harremanetarako, 610 147 291.

- Emakumea eskaintzen da garbiketa edota zaintza lanak egiteko interna edo externa modura. Erreferentzia eta esperientziarekin. 680 767 241.
- Emakumea eskaintzen da astelheenetik ostiralera gauz pertsona adinduak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziarekin. Gladis 699 820 299
- Mutil arduratsua esperientzia eta gidabaimenarekin lana bilatzen du orduka, interno edo externo. 688302653
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak eta zaintza lanetarako interna edo externa moduan. Harremanetarako, 685 520 590
- Nikaraguako mutila lanerako prest helduen zaintza interno edo externo moduan. Titulazioa eta esperientziaduna. 633288124
- Emakume arduratsua lana bilatzen du, externa edo interna, pertsona adinduak, umeak edo gar-

biketa, lanetan. Esperientziaduna eta erreferentziarekin. 633292912

- Lan bila nabil, interna, gauz, orduka lan egingo nuke. Harremanetarako, 649 907 548.
- Emakumea eskaintzen da garbiketa lanak edo haurrek, zein pertsona adinduak zaintzeko. Orduka edo egun osoa. Erreferentziak ditu. Harremanetarako, 681 042 214.
- Etxean garbiketa lanak egin edo pertsona nagusiak zainduko nituzke interna moduan. Harremanetarako, 634278198.
- Pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko asteen zehar; jai egun eta asteburuetan... edozertarako prest. Orduka lan egiteko prest ere. 943404015/606661048

Bestelakoak

- Ingelesa ikasteko klase partikularrik ematen dituz bakarka, zein taldeka. 693 601 222.

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORIA  
UDALA

Txintxarrik ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Laguntzailea



Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4  
20160 Lasarte-Oria  
943 366 858/943 371 448  
G-20407557

Legezko gordailua:

SS513/93  
ISSN: 1134-0053

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakiko: 7.800

txintxarri

Erredakzioa:

Maidor Azumendi, Nerea  
Ezzagire, Jon Altuna E.

txintxarri@txintxarri.info

Publizitatea eta administrazioa:

Arantza Artola

publizitatea@ttakun.com  
administrazioa@ttakun.com

Laguntzaileak:

Unai Muñoz, Gorka Lasa,  
Ane Labaka, Mañu Armuti,  
Asier Odriozola, Jone M.,  
Hernandez, Oihana Salazar,  
Pako Aizpitarte, Edu Galardi

Informatikoa:

Xabier Amadoz

## POLITIKA

## Kooperazioa eta kudeaketa

PSE-EEK Bildu, EAJ eta LOHP-ri salaketa jartzea eskatzen die

Lasarte-Oriako PSE-EEK bere aldezkarion kooperazio arloko korapiloari irtenbiderik jarri nahi ez izana egotzen die Bildu, EAJ eta LOHP-ri, baita Udalaren kudeaketa eza egotea ere.



Jesus Zaballos alderdi sozialistako bozeramailea PSE-EEren aldezkariko zenbakiarekin.

TXINTXARRI

Jesus Zaballos PSE-EEK bozeramaileak astelehenean Lasarte-Oriako alderdi sozialistaren aldezkarion zenbaki berria aurkeztu zuen.

Aldizkaria aitzaki, PSE-EEK Bildu, EAJ eta LOHP-k kooperazio arloko afera konpontzeko aurrera pausorik ez emateaz gain, gobernu, zein koalizioko alderdien kudeaketa eza ere agerian utzi nahi izan zuen prentsaurrekoan.

Alderdi sozialistako bozeramaileak aipatu zuenez, nekatuak daude kooperazio arloko gaiak aurrera egin ez duelako. "Bildu, EAJ eta LOHP-k ustelkeria-delituak egotzi zizkiguten baina ez da salaketarik jarri oraindik".

Zaballosek gogoratu duenez, 2005-2006 urteetan hasi zen kooperazioaren inguruko afera, "orduak Plataforma bere panfletoan argitaratu zuen eta oposizioak prentsaurrekoak eskaini zituen".

EB-ak salaketa jarri zuen eta LOHP-k bere aldezkarietako bat bidali zuen fiskaltzara, baina Udalarari eta orduko alkateari Urchueguiari infor-

mazioa eskatu ostean, bi salaketa horiek artxibatuak izan zirela aipatu zuen agerraldian.

Duela bi urte, Batzorde berezia sortu zen hau azaltzeko. Auditoria fiskal bat ere egin da, baina ez dago emaitzarik oraindik. "Udan amaitu behar zen auditoria hori eta oraindik zain gaude. Kontratuan argi esaten zen orduan aurkeztu behar zela, ez al diote atzerapenagatik aholkularitza talde horri ordainik eskatuko?"

PSE-EEK egoera argitu nahi duela eta bere burua eta irudia defendatu eta garbitu nahi duela azpimarratu zuen. "Zergatik ez dute PSE-EE salatzen? Probak badaude zergatik ez dute fiskaltzara jo? EAJ-k salaketa idatzi badu, zergatik ez du aurkeztu? Zergatik kasua aztertu duten abokatuak ez dute salaketarik aurkeztu? Zergatik azken abokatuak eskuak garbitu eta aholkularitza zerbitzu baten auditoria eskatu du? Ez daukate ezer" adierazi zuen.

Gainera, Bildu, EAJ eta LOHP-k gai hau argitzeko interesik ez dutela deritzo alderdi sozialistak eta kooperazioko afera 2015. urteko hauteskundeetara begira berrindartuko dutela salatu zuen.

**Kudeaketa eza**

Hau guztiaz gain, gobernu eta koalizioko alderdiek lanik egin ez dutela ere azpimarratu zuen.

"Niri ez dit axola gobernutik kanpora geratzea, beti ere, hurrengoak guk baino kudeaketa hobea eginen badu". Lasarte-Oriako haurparkeak kendu eta bere lekuan ezer ez jartzea, errepideetako asfaltatzea ez berritzea eta Udalaren garaje, zein etxebizitzak ez alokatzea jarri zituen kudeaketa eza honen adibide.

Era honetara, alderdi sozialistak Bildu, EAJ eta LOHP-k zerbitzuetan eta behar minimoetan atzera eginen ari direla ohartarazi du, "lasarteoriatarren beharrei begira, legealdi galdua eta atzeraketa izango da".

## AMARAUN

## Beldurrari aurre eginez

Amaraun klubak sentimenduak lantzen ipuin-kontalari saio bereziak antolatu ditu aurtan. Hauetan haurrek ipuina entzuteaz gain, sentimendu desberdinak barneratu ditzakete. Azaroan haserrea landu zuten, urtarrilean maitasuna eta azkenean saioan, martxoaren 13an, osteguna beldurrari aurre egingo diote etxeko txikiek.

3-4 urteko haurrei, 2010 eta 2009 urteetan jaiotakoek hain zuzen ere zuzendutako saioa izango da, 18:00etatik 19:00ak bitarte eta Amaraun ludotekan egingo da.

"Jonas eta hozkailu beldurtia" liburuari esker, Jonas txikiaren abenturak ezagutu eta beldurra gainditzeko zer eginen duen ikasiko dute txikiek. Baina istorioaz gain, asmakizunak, abestiak eta poesia baliabide izango dira haurrek beldurra garaitzeko.

Egitasmoko arduradunek aipatu dutenez, ipuin kontaketa honetan parte hartu nahi duten haurren izena ematea komenigarria da. Izena emateko, Ttakuneko bulegoan, aisia@ttakun.com helbide elektronikorako edo 943 371 448 telefonoan egin daiteke.

## EUSKARA

## Langabetuentzat euskara ikastaroak

Munteri-AEK euskaltegiak Udalaren laguntzaz herriko langabetuentzako euskara ikastaroa antolatu du. Ikastaro trinkoa izango da martxoaren 17tik maiatzaren 13ra. Egunean 4 orduko saioak izango dira. Euskara maila ezagutzeko proba bat egingo da. Ikastaroak 10 euro balio ditu. Izena eman edo informazio gehiagorako Munteri-AEK-ra gerturatu behar da. Inskripzioa egiteko azken eguna gaur, martxoaren 7a da.

## GAZTE KLUBA

## Txuri-Urdinera irteera

Gazte Klubeko lagunek Gazteburu berezia izango dute martxoaren 15an, Txuri-Urdinera irteera.

Zumaburuko autobus geltokitik aterako dira 16:00etan eta Txuri-Urdin izotz jauregian arratsalde pasa ederra egin ostean, 19:30ean bueltatuko dira gaztetxoak Lasarte-Oriara.

Haurrek merienda, galtzerdi lodiak eta eskularruak eraman behar dituzte txangora. Arratsalde pasa honen prezioa 12 eurotako da Ttakuneko bazkideentzat eta 15 eurotako bazkide ez direnentzat. Izena ematea mugatua da, 48 plaza.

Ttakuneko bulegoan, aisia@ttakun.com helbide elektronikorako edo 943 371 448 telefonoan egin dezakete izena ematea. Ordainketa Ttakuneko bulegoan txartelarekin edo eskudirutan egin daiteke.

## KULTURARTEKOTASUNA

## Nazioarteko bazkaria Sasoetan

Sasoeta-Zumaburu ikastetxeko Burunzpe guraso elkarteak antolatuta igande, martxoaren 9an, 13:00etatik bazkaria berezia izango da Sasoetako jangelan.

Familia bakoitzak bere herri edo eskualdeko 6 pertsonentzako egindako plater bat eraman behar du eta besteen janaria dastatzeko aukera izango du. Guraso elkarteak edariak jarriko ditu.

Ekimen honen bitartez, herrialde edo eskualde desberdinetako gurasoak elkar ezagutzeko aukera izango da.

## UDALA

## Inbertsioak kirol instalakuntzak hobetzeko

Lasarte-Oriako Udalak jakitera eman duenez, Udal kiroldegia gutzira 73.000 eurotara iritsiko diren inbertsioak eginen ari da zaharkiturik zeuden hainbat instalakuntza berritzeko helburuarekin.

Esate baterako, 13 urteetako funtzionamenduaren ostean, ur biltegia aldatu da. Udalak aipatu duenez, "biltegi aldaketa egiteko beharrezko doikuntzak izan dira, azken asteetan nabaritu diren uraren tenperatura aldaketaren arrazoiak".

Bestetik, igerilekuko aldageletako eta muskulazio nahiz kardio getetako argiztapena ere aldatu da, aurrezpen energetiko ekarriko duen LED sistema baten bitartez.

Hau guztiaz gain, gimnasia ermittikoa egiteko tapiz berri bat erosiko da, pilotaleku eta tenisako pistetan sare berriak jarriko dira eta kardio gelan ere inbertsio garrantzitsua egingo da, bi makina eliptiko multifuntzionalak erosiko baitira.

## Sormena lantzeko ikastaroa

Ikaskidetza Sareak Bikumé SL-ren bitartez "Kreatibitateak lagun diezazuke..." ikastaroa eskainiko du martxoaren 13an, osteguna Manuel Lekuona kultur-etxean.

Ikastaroak lau ordu iraungo ditu, 16:00etatik 20:00etara eta gazteleraz izango da.

Problemak ebazteko, egitasmo sortzaileak erazteko edo erronka berriei ekiteko asmoz tresna kreatiboak baliatuz ideiak sortzea du xede ikastaroak.

**Teknikak eta esperientziak**

Sormen teknikak, brainstorming, scamper edo ezagarriz



Sormena lantzeko teknikak ikasi eta esperientziak elkarbanatuko dituzte ikastaroan.

zerrenda eta ideiak aurkezteko modu desberdinak azalduko dira ikastaroan.

Antolatzaileek aipatu dutenez, tailer dinamizatzaileak izango da eta ikasleek elkarlana sustatuko du. Sormenaren inguruan esperien-

tzia eta ezaguerak trukatuko dira eta aldi berean ekintza ezberdin ugari planteatuko dira.

Izen-ematea doakoa da eta [www.ikaskidetza.org](http://www.ikaskidetza.org) orrialdean egin behar da. 25 plaza daude eskuragarri.

# Dantzan egitasmoak hiru ikuskizun ekarriko ditu

*Martxoaren 15ean Asier Zabaletaren "N.A.N" dantza ikuskizuna izango da Manuel Lekuonan*

**Eusko Jaurlaritzaren Dantzan egitasmoaren baitan hiru dantza ikuskizun izango dira Lasarte-Orian datozen hilabeteetan. Lehenengoa Asier Zabaletaren "N.A.N" lana izango da martxoaren 15ean 20:00etan kultur-etxean eta dagoeneko sarrerak salgai daude. Udaleko kultura sailetik puntako dantza garaikide lanak ikustera gonbidatzen dituzte herritarrek.**

Eusko Jaurlaritzak sustatutako Dantzan egitasmoa herrira iritsiko da beste behin eta honi esker, lehen mailako dantza garaikide ikuskizunez gozatzeko aukera izango da Manuel Lekuonako areto nagusian eta Okendo plazan.

Lehenengoa, Asier Zabaletak zuzendutako "N.A.N" lana izango da gurean Zabaleta beraren Ertza dantza antzerki taldearen eskutik.

2012an Zabaletaren "Act of God" lana ikusi ahal izan zen herrian, orduan, Harkaitz Canorekin batera prestatutako dantza ikuskizuna aurkeztera etorri ziren udaleko kultura sailak gonbidatuta.

Asier Zabaletak oraingoan "N.A.N" ekarriko du. Bere herriarekin aurrez jarri eta hainbat aitorten egiteko beharretik sortutako lana dela azaltzen du.

"Herria, ez soilik lurralde ikuspegi bezala, ohitura, sinbolo, sineskera eta jokamolde komunak konpartitzen dituen gizatalde bezala".

## Martxoak 15

Dantza garaikidea, testua,

bideoa eta zuzeneko musika uztauz, nortasunaren eta nazionalitatearen mugetatik at doan bidaia eszeniko bezala deskribatzen du Zabaletak datorren larunbatean ikusi ahal izango den lanaz.

Iñar Sastre piano-jolearen doinuek lagunduta, herria, nazioa edo aberria bezalako kontzeptuen inguruan hausnartzeko gonbidapena luzatu nahi dute dantzaren bidez.

Esan bezala hitzordua, martxoaren 15ean izango da 20:00etan Manuel Lekuonan. Dagoeneko sarrerak eskuratu daitezke, Internet bidez [lasarte-oria.org/kultura](http://lasarte-oria.org/kultura) atalean sartuta, 5,40 euro edo leihatilan 6,60 euro.

## Kukai Okendon

Larunbateko lanaz gain, beste bi dantza ikuskizun izango dira datozen hilabeteetan gurean.

Uztailaren 11ean Kukai dantza konpainia beriz ere gurera etorriko da "Gelajauziak" bere azken lana aurkezteko.

Proiektu hau Jon Maya eta Cesc Gelabert koreografoaren



Asier Zabaletaren "N.A.N" dantza ikuskizuna martxoaren 15ean izango da Manuel Lekuonan.

harremanetik eta elkarrekin egindako gogoetatik sortutakoa da. Dantza eta arteari buruzko ikuspegi ezberdinak dituzte bi koreografoek baina aldi berean, baita gogoeta komunak ere.

Dantza zein kultura tradizionalak gaur egungo gizarte eta artearen munduan duen lekuaz gogoeta eginez abiatu zuten elkarlana eurek azaldu moduan.

Hausnarketa horiek praktikara eramanda sortu da "Gelajauziak". Oinarrian Gipuzkoako soinu-zarrak eta

Lapurdiko dantza-jauziak hartu dituztelarik.

Pieza hau aurkezteko gunea enparantza dela diote sortzaileek "dantza jauziak eta soinu-zarrek duten balio soziala, elkargune izateko gaitasuna... plazan hartzen du zentzua".

Horrela izanda, 20:00etan Okendon ikusi ahal izango da ikuskizun hau.

Bestalde, udazkenean, egitasmoaren baitako azken ikuskizuna iritsiko da Daniel Abreu Tenerifeko koreografoaren eskutik eta bere "Silencio"

dantza ikuskizunarekin. Urriaren 25ean ikusi ahal izango da 20:00etan Manuel Lekuona kultur-etxean.

"Hutsik dagoen edozein espazio betetzen bukatzen da eta isiltasuna zaila da aurkitzen". Zuzendariaren arabera, dantza ikuskizunak hainbat paisaia ekarriko ditu ikuslearen gogora eta honen baitan sentimenduen bilaketara joko du.

Udaleko kultura sailetik lehen mailako dantza ikuskizunez gozatzeko deia egiten diete herritarrei.

## #SPJ14, San Pedroetarako proposamenak egiteko gakoa

Sare sozialen bidez udalak San Pedro jaietarako herritarren proposamenak jasoko ditu. Horretarako #SPJ14 traola sustatzeko kanpaina martxan jarri du.

Jendeak geroz eta ohitura gehiago du halako hitz gakoak sare sozialetan erabiltzeko eta honetaz konturaturuta, udalak #SPJ14 traola proposatzen digu aurtengo festetarako.

Hala ere, honen erabilera jaietan ez ezik, antolaketa-rako diren hilabete hauetan martxan jartzeko deia egiten da. Hauen inguruko edozein proposamen egiteko erabilteza nahi dute.

### Jaietan Blai!

Gogoratu behar da dagoeneko herriko festak antolatzeko Jaietan Blai! prozesuaren baitan aurreikusitako bi bilera

irekiak egin direla. Bertan esandakoa jaso eta orain udaleko teknikariek dagokie bilera hauetan esandakoa kontutan hartuta jai egitaraua gauzatzea.

Hilabete hauetan hala ere, udala prest azaltzen da herritarren proposamen zehatzei tarte egiteko eta horretarako hain zuzen, abiatu du #SPJ14 kanpaina.

"Zer proposatzen duzu San Pedro hauetarako? Zein musika estilo edo zein talde gustatuko litzaizuke aurtengo festetan? Zein lehiaketa nahiko zenuke? Gastronomikoa? Kulturala? Kale ikuskitik ikusi nahiko zenuke?"

### Twitter eta Facebook

San Pedro jaietarako ideiak proposatzeko aukera twitter bidez, #SPJ14 traola duen mezua idatziz, edo Udaltex-

Zer proposatzen duzu aurtengo San Pedro jaietarako?  
Sare sozialen bitartez proposatzeko aukera duzu orain.  
Twitter (#SPJ14 traolaren bidez) edo Lasarte-Oriako Udaleko facebook orrialdeetan duzu aukera

¿Qué propones para estos San Pedros?  
Ahora puedes mandarnos tus propuestas mediante las redes sociales.  
Publicalas en Twitter (con el hashtag #SPJ14) o en las páginas de Facebook del Ayuntamiento.

Proposamenak jasotzeko traola zabaldu nahi du udalak herritarren artean eta horretarako kanpainaren kartela.

ko Facebook orrialdeetan argitaratzea animatzen dituzte herritarrek. Helburua lasarte-riartarren ekarpenetik sortutako festak osatzea da,

aurreko urteetan bezala, eta ahalik eta parte hartze handiena lortu antolatzen diren ekitntza guztietan.

Aipatu behar da, ia

San Pedro jaietaren, presentzia emateko TXINTXARRI-k #SPJ13 traola erabiltzeko gonbitea luzatu eta oso harrera ona izan zuela.

# Emakumearen egunagatik ekintzak

## Abortuaren legeri buruzko foroak hasi zuen Emakumearen eguneko ekintza egitaraua

Emakumearen eguna dela eta herrian hainbat ekintza antolatuta dituzten emakumeen zentroak. Bart Villa Mirentxun foro irekia egin zen abortuaren legearen aurreproiektuaz hitz egiteko. Gaurkoan 19:30ean Lan eta Lan taldearen "Cinco mujeres con el mismo vestido" antzerki amateuraz gozatzeko aukera izango da Manuel Lekuonako. Bihar berri, Martxoaren 8a izanda, eguerdian elkarretaratzea egingo da Okendon eta Kukukaren "Begiratu eta ikusi ez!" antzerkia izango da arratsaldean kultur-etxean.

### TXINTXARRI

**E**makumeen zentroak atzo hasi zuen Martxoaren 8aren inguruan egin ohi diren ekintzen egitaraua. Villa Mirentxun herritarrek elkartu zituzten Espainiako gobernuko martxan jarri nahi duen abortuaren inguruko legeaz mintzatzeko.

Joana Azpitarte Emakumeen zentroko teknikaria arduratu zen aurkezpena egiteaz. Berak 2010. urteko legearen inguruko informazioa eman zuen eta gobernuaren lege berriak dakartzan aldaketak plazaratu zituen. Azalpenetan lagun izan zuen Fernando Vaquerizo herritarra. Mundubat gobernuz kanpoko erakundeak kideak munduko beste herrialde batzuetan emakumeen eskubideen inguru ikuspuntuak emateko.

### Lege berria

Joana Azpitarte azaldu zuenez, 2010. urtean onartutako

epeen eredia bertan behera utzi, eta baldintzenari heldu dio gobernuak. Orain arte hamalagarren astera arte baldintzarik gabe aborta liteke, aurrerantzean, bi arrazoi aurreikusten dira. Batetik, andreak osasun fisikoa edo psikikoa arriskuan egotea, edo bortxaketa bat jasan izana. Bortxaketen kasuan, hamabi asteko epea jarriko dute abortatzeko, eta salaketa jarrita egon beharko da. Osasun arriskuaren kasuan, berri, muga 22. astea egonleko da. 22. astea igarota, jaiotze epea beharko du umeak.

Andrea eta enbrioiaren parean jarri ditu gobernuak. Justizia ministroak dio bien eskubideak hartu behar direla aintzat. Bestalde, adingabeek gurasoen baimena beharko dute abortatzeko. Egun 16 eta 18 urte artekoek ez dute derrigorrez baimena eduki behar.

Lege berriaren enbrioiak malformazioak izatea ez da arrazoi nahikoa izango abortatzeko. Eta abortua onartu



Joana Azpitarte hasi zuen solasaldia legearen inguruko informazioa emanez.

ahal izateko, hiru sendagileen baiezkoa beharko du emakumeak: abortua bera egingo duenarena, eta hori onetsiko duten beste birena. Bi mediku horiek ezingo dute izan abortua egingo den klinikako langileak. Andreari "aholkularitza" emango diote, gainera. Eta abortua bera egin baino lehen astebeteko epea igaro beharko du paperak eginen diren bitartean, "gogoeta egiteko". Aurrerantzean da ere, azken momentuan atzera egin ahalko dutela medikuek kontzientzia eragozpena adierazita.

Villa Mirentxun hausnartzen dituzten galdera plazaratu ziren, eskubideei begira bala du legearen aldaketa? nork eskatu du lege aldaketa hau? eta zeintzuk izango dira lege honen ondorioak? Hauen inguruan gogoeta egin zuten bertaratuak.

### Martxoak 8

Gaurkoan, Lan eta Lan herriko antzerki taldeak "Cinco mujeres con el mismo vestido" antzezlanaren egingo du Manuel Lekuonako 19:30ean. Ostean, Goiegin egingo dute urteroko afaria.

Bihar martxoaren 8a izanda, 12:00etan elkarretaratzea egingo da Okendo plazan "emakumeen eskubideen alde" lemapean.

20:00etan Kukukaren Manuel Lekuonako kafetegian "Begiratu eta ikusi ez" antzezlanaren egingo du.

Azkenik, 13an emakumeen zentroan 18:30ean "Alardearen seme-alabak" dokumentala ikusi eta solasaldia egiteko aukera izango da Jone Karres zuzendariarekin.

Herritarrek ekintzen parte hartzea deitzen dituzte emakumearen zentrotik.

## Emakumearen eguna dela eta udalaren adierazpena

**L**asarte-Oriako udalak bozeramaileen batzordean honako adierazpen instituzionala onartu zuen osteguneko martxoaren 8an emakumeen nazioarteko eguna dela eta.

"Nazio Batuen Erakundeak 1975 urtean martxoaren 8ari eman zion Emakumeen Nazioarteko Eguna izena. Ospakizun honen kariaz, Lasarte-Oriako Udalak aitortu egiten du emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna giza eskubide izateaz gain, Gobernu onerako faktore oinarritzeko eta ezinbestekoa dela eta, horrekin batera, Euskadiko giza garapenera eta gizaratearen garapen sozial eta ekonomikorako elementu beharrezkoa.

Berdintasunerako bidean aurrerapausoak eman dira, bai, baina luzea da oraindik egin behar den ibilbide zati.

Oraindik ere, XXI. mendean eta mendebaldeko gizartearen deitzen den honetan, gizonak emakumeak baino gehiago direla pentsatzen da, eta haiek egiten dutena garrantzitsuagoa delako ustea zabaldua dago. Hainbat gazte jendearen buruan errotuta dagoen pentsamolde hori da esparru ugarietan desberdintasunak eta diskriminazioa betikotzea eragiten duena.

Oraingo testuinguru sozial eta politikoan kezka biziz egiaztatzen dugu berdintasunaren ameskeriak berdintasun horren lorpen efektibo eta egiazkoa geldiarazteko mehatxua suposatzen duela. Arduratuta ikusten dugu orain arte lortutakoan atzerako pausoak ematen ari direla. Horregatik uste dugu ekinean jarraitu behar dugula, lan eginez eta ekinez, giza bidezkoago

eta berdintzaileagoa lortzeko.

Lasarte-Oriako Udalak beharrezko eta premiazko jotzen du berdintasuna gauzatzeko behar den giza eraldaketa ekarriko duen balore aldaketa. Eredu patriarkal eta matxistatik jauzi egin behar dugu eredu berdintzaile eta bidezkoagorara sartzeko. Horixe izango da, emakume eta gizonok, lan esparruan emakumeen diskriminazioaren kontra, lan produktiboaren eta ugalketa lanaren banaketa desorekatuaren aurka eta emakumeenganako bortxakeriaren kontra egin behar dugun borrokatik garaile irteteko giltzarria.

Balore aldaketa hori sustatzea lan konplexua da. Norbanako bakoitzaren pentsamoldean eragitea suposatzen du. Horregatik, Lasarte-Oriako Udalaren

aldetik, giza hau osatzen dugun pertsona guztiei dei egin nahi diegu, gure eguneroko bizitzan, gure erabakien eta jarreraren bidez, berdintasuna ahalbidetzea lor dezagun. Emakume eta gizon guztien lana da.

Horregatik guztiagatik, Emakumeen Nazioarteko Eguna den 2014ko martxoaren 8 honetan,

JAKITUN IZANIK berdintasunak giza aurrera egiten laguntzen digula, pertsonen autonomia hobetzea ahalbidetzen duela eta berdintasunaren arteko harremanak eta errespetuan oinarritutako tratuak sustatzen eta demokrazian aurrera egiten uzten digula, eta JAKITUN IZANIK, era berean, "genero arrakala" ixteko lanean arrakastarik handiena lortu duten herrialdeak esparru ekonomikoan aurreratuagoak eta sozialki bidezkoagoak direla.

ADIERAZTEN DUGU emakume eta gizonen arteko berdintasunerako bidean aurrera egiteko urrats sendoak ematen jarraitu behar dugula desberdintasuna betikotzen duten baloreak aldatzea sustatuz, eta horretarako

HITZA EMATEN DUGU beharrezko aldaketa bultzatuko dugula politikagintzan nagusi den ereduak gizonen botere eta lidergoan oinarrituta egoteari utzi diezaien, eredu horren bizirapena zaintza arduaren banaketa ez ekitatiboari lotuta, eragozpen handia baita emakumeak politikagintzan sartzeko eta alor horretan aurrera pausoak emateko eta, oro har, emakumeek esparru publikoan parte har dezaten. Giza garatu eta aske batek ezingo baitu aurrera egin, biztanleriaren erdi bati beste erdiari ematen dizkion aukera berberak eman ezik."

LABURRAK.

Landa pilotaria ere Trinket txapelketako finalean

Asteleheneko TXINTXARRIN Intzako Aritz Solano eta Adur Etxezarreta jubenil bikotea Gipuzkoako Trinket txapelketako finala jokatu...

Bihar, 16:00etatik aurrera, Irurako Ametsa trinketan Gipuzkoako Trinket txapelketako bikotekako txapelketako finala izango dira.

Aritz Solanok eta Adur Etxezarretak Oiarpeko Xabi Azpiroz eta Andoni Flores bikotearen aurka jokatu du. Partida parekatua da...

Mikel Landak, berriz, Enrique Huici usurbildarrarekin batera Behar Zana taldeko Arruti eta Esnaolari egin beharko die aurre.

Honetaz gain, Intzako arduradunak jakin arazi digunez, Axier Arteaga, Aritz Solano eta Mikel Landa herritarrak Gipuzkoako selekzioarekin GRAVNI (Gipuzkoa, Errioxa, Araba, Bizkaia, Nafarroa eta Iparralde) jokatu dute.

Bestalde, Intzak BERRIA txapelketako sailkapen saioa izan zuen bart Alegin. Kadete, jubenil eta seniorrek Intxurre taldeko bikoteen aurka jokatu zuten.

Mendibe judoka ederki Espainiako kopan

LOKEko Yeray Mendibe judoka gaztea infantil mailako Espainiako kopako saioan izan zen lehian Tenerifin.

Mendibe lehen urteko infantilak 55 kilo azpiko mailan parte hartu zuen eta bosgarren postua eskuratu zuen.

5 norgehiagokari aurre egin behar izan zizkion judoka gazteak eta hirutan garaile izan zen. Gorka Aristegi entrenatzaileak irakurketa oso positiboa egin du...

ATLETISMOA.

LOKEko atletak Euskadikoan bikain

Rodriguez eta Rekondo Euskadiko txapeldun berriak dira

Larunbatean Donostiako belodromoan LOKEko kadete, jubenil eta junior mailako gazteak Euskadiko txapelketan lehiatu ziren. Lan ederra egin zuten. Aste honetan Espainiako txapelketan izango dira.

TXINTXARRI

Euskadiko bi txapeldun berri ditu LOKEko atletismo taldeak, Itoitz Rodriguez eta Maider Rekondo jubenilak.

Itoitz Rodriguez garaile izan zen jubenil mailako 200 m. lasterketan garaile; Maider Rekondok berriz pisu jaurtiketa proban irabaiz zuen garaikurra.

Honetaz gain, LOKEko beste lau gazte ere izan ziren jubenil mailako podiumean.

Zilarrezko domina eskuratu zuten Maria Eugi 60 m. lasterketan, Eneritz Busto altuera proban eta Ane Galardi jauzi



Espainiako txapelketan lehiatu diren LOKEko gazteak.

hirukoitzean. Galardik gainera 11m eta 18 zm. marka egin ostean, Espainiako txapelketarako txartela eskuratu zuen.

Azkenik, Oihana Igarriz hirugarren izan zen pisu proban.

Bestalde, Yeray Veroniz juniorra, Idoia Olasagasti jubenila, Amaia Harto eta Asier Olmos kadetea finaletan izan ziren lehian.

Valentzian aukerak

Asteburu honetan, berriz, sei

atleta jubenil Valentzian izango dira Espainiako txapelketan.

"Guztiak haien marketan egotea espero dugu" aipatu digu Oskar Goikoetxea entrenatzaileak.

Itoitz Rodriguezek domina lortu dezake eta Eneritz Busto eta Maider Rekondo finaletan lehiatzeko aukera asko dituzte.

Maria Eugi, Idoia Olasagastik eta Ane Galardik zailago izango dute, baina "Aneren kasuan aire libreko gutxienekoa lortzea du helburu".

KIROL AGENDA.

FUTBOLA

- Larunbata 08 Michelin, 10:00etan Ostadar-Sportin de Herrera Infantil txikia, partaidetza, txapeldunen fasea Michelin, 11:30ean Ostadar B-Santo Tomas Lizoea I. kadetea, kopa Michelin, 13:00etan Ostadar-Martutene I. infantilak, txapeldunen fasea Urnieta, 15:00etan Urnieta-Ostadar I. kadetea, kopa Michelin, 16:30ean Ostadar-Vasconia Erregional Ohorezko maila Trintxer, Pasaia, 17:00etan Gazte Azkuene-Texas Lasartearra I. Erregionala, kopa Martutene, Donostia, 17:30ean Amara Berri-Ostadar B I. infantilak, kopa Michelin, 18:15ean Ostadar-Beasain Euskal Liga, Kadeteen Ohorezko maila

Igandea 09

- Michelin, 09:45ean Ostadar-Pasaia I. Jubenila, igoera Michelin, 11:30ean Texas Lasartearra-Idiazabal I. Jubenila, kopa Harane, Usurbil, 17:00etan Usurbil-Ostadar Jubenilen Ohorezko maila

Martutene, Donostia, 17:15ean Amara Berri-Ostadar Emakumezkoen Liga, kopa

ARETO-FUTBOLA

- Ostirala 07 HERRIKO TXAPELKETA 19:45ean, Balardi-Txindoki 20:45ean, Urdaneta H.K.-Ilargi Kiroldegia, 20:55ean ISU Leihoak-Euskalduna Gipuzkoako Liga Larunbata 08 HERRIKO TXAPELKETA 09:15ean, Indaux-Izkiña 10:15ean, Buenetxea-Aritzta 11:15ean, Viña del Mar-Arkupe 12:15ean, El Punto-Trumoi

El Puerto Kiroldegia, Santurtzi, 16:30ean San Jorge Santurtzi-Aldaz H.K. Nazional III. maila

SASKIBALOA

- Larunbata 08 Kiroldegia, 18:00etan Ostadar SKT-Soraluze Bergara Nesken junior maila, partaidetza Paco Yoldi, Donostia, 18:00etan Bera Bera Manteo-Ostadar SKT Nesken kadete maila, errendimendua



PILOTA

- Larunbata 08 Ametsa trinketa, Irura, 16:00etan Oiarpe I-Intza Eskuz binaka, jubenila. Trinket txapelketa. Finala. Ametsa trinketa, Irura, 16:00etan Behar Zana-Usurbil Eskuz binaka, I. seniorra. Trinket txapelketa. Finala.

ATLETISMOA

- Larunbata 08 eta igandea 09 Valentzia, 10:00etan eta 16:00etan LOKEko atletak jubenil mailako Espainiako txapelketan parte hartuko dute. Larunbata 08 Ibaeta, Donostia, 17:00etan Herriko hainbat atletek Aingeru Guarda igoera-Ibaeta Jaietako XI. krolean parte hartuko dute.

Igandea 09

- Senpere, 09:00etan Herriko hainbat atleta Senpere III. Trail proban lehiatuko dira. Azpeitia, 10:00etan Herriko hainbat atleta VI. Zuzenian igoera bertikala proban lehiatuko dira. Donostia, 11:00etan Herriko hainbat emakumek 25. Lilaotian parte hartuko dute. Donostia, 11:15ean Herriko hainbat korrikalari

Beasaingo IV. herri lasterketan lehiatuko dira.

IGERIKETA

- Larunbata 08 eta igandea 09 Tolosa, 10:00etan eta 17:00etan Buruntzaldea IKT-ko infantilak Euskadiko txapelketan lehiatuko dira.

JUDO

- Larunbata 08 Zaragoza LOKEko Josu Olmos eta Esteban Martinez judokak junior mailako Espainiako iparraldeko sailkapen saioan izango dira.

TENISA

- Larunbata 08 Donostia, 17:30ean Ander Huegun-Joserra Ceballos ATG - ATSS txapelketa. Finalerdia

ERRUGBIA

- Larunbata 08 Asti, Zarautz, 10:00etan Beltzak Ostadar Jalai-La Unica 16 urte azpikoak Asti, Zarautz, 11:30ean Beltzak Ostadar Jalai B-Gaztedi Eskolarteko infantilak Michelin, 15:00etan Beltzak Ostadar Gure Etxea-

Universitario Bibao Euskal Liga, kadetek

Igandea 09

- Arazuri, Nafarroa Beltzak Ostadar Jalai eskolako benjamin eta alebinek topaketa dute. Plaiaundi, Irun, 12:00etan Irun-Beltzak Ostadar Jalai A Eskolarteko infantilak

TXIRRINDULARITZA

- Larunbata 08 Azpeitia, 10:30ean Buruntzazpi txirrindularitza eskolako kadetek XXXIV.Azpeitia saria proban parte hartuko dute. Hernani, 16:30ean Buruntzazpi txirrindularitza eskolako infantilek Hernaniko Saria proban parte hartuko dute.

Igandea 09

- Biyak Bat elkartea, 09:00etan Ostadar SKT-ko zikloturista taldeak Zumaiara egingo du irteera. Errenteria, 16:00etan Buruntzazpi txirrindularitza eskolako eta herriko jubenilak XXXI. Errenteria Hiria sarian lehiatuko dira.

BOLA-JOKOA

- Igandea 09 Idiazabal, 10:00etan eta 16:30ean Ostadar SKT-ko bola joko taldeak Lehendakari txapelketako saioa du.

## Agenda

Igandea 09, 19:30ean, Manuel Lekuona kultur-etxea



### Euskal gatazka eta adiskidetasuna

Helduentzako zinea, atalean "Asier eta biok" filma ikusteko aukera izango da. Euskal gatazka beste era batera erakusteko eginiko ahalegina da. Aitor eta Amaia Merino anai-arrebek zuzendutako proiektuak Asier Aranguren euskal presoaren eta Merinoren adiskidetasuna du oinarri. Sarrera, leihatilan, 5,90 euro; internet bidez, 5,30 euro. Euskaraz.

**Ostirala 7, 00:00etan**  
Dj Axel-ek saioa eskainiko du.  
**Larunbata 8, 22:00etan**  
Hip hopaz gozatzeko "Old School All Stars" jaialdia.  
**Larunbata 8, 23:55etan**  
"Agur Old School Dj's" emanaldia izango da.

**ABEND KAFE-ANTZOKIA**  
**Larunbata 8, 00:00etan**  
Idoia Bediagaren kontzertuaz gozatzeko aukera. Sarrera, 5 euro.

### Ipuin-kontalaria

**MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA**  
**Astearte 11, 18:00etan**  
6-8 urte bitarteko haurrentzat ipuin irakurketa izango da.

**AMARAUN LUDOTEKA**  
**Osteguna 13, 18:00etan**  
Sentimenduak landuz ipuin kontaketen barruan, "Jonas eta hozkailu beldurtia" ipuina irakurriko da. Beldurra eta poesia landuko dituzte 3-6 urte arteko haurrek.



### Lasarte-Oria

#### Zinea

**MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA**  
**Igandea 09, 17:00etan**  
Haurren zinea atalean, "Rodencia y el diente de la princesa" filma izango da. Sarrera, leihatilan 3,70 euro; internet bidez, 3,18 euro. Gaztelaniaz

teurratz gozatzeko aukera izango da. Sarrera, 3 euro. Gaztelaniaz.  
**Larunbata 8, 20:00etan**  
Kukuka antzerki eta dantza eskolaren "Begiratu eta ikusi ez!" antzerkia ikusi ahalgo da. Euskaraz.

**SEMBLANTE ANDALUZ**  
**Ostirala 7, 19:30ean**  
"Andaluces y Saharais" hitzaldia eskainiko du Yaiza Ruiz Sahar herriaren lagunak taldeko kideak. Ostean, afaria.

**OKENDO PLAZA**  
**Larunbata 8, 12:00etan**  
Emakumearen nazioarteko eguna dela

eta, herritarrek elkarretaratzea egingo dute.

**EMAKUMEEN ZENTROA**  
**Osteguna 13, 18:30ean**  
"Alarderen seme-alabak" dokumentalaren bideoforuma egingo dute. Jone Karres zuzendaria izango da solasaldian.

#### Musika

**ZULO ARETOA**  
**Ostirala 7, 22:00etan**  
Albertucho-ren kontzertua entzuteko aukera. Sarrera, 12 euro.

#### Emakumearen eguna

**MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA**  
**Ostirala 7, 19:30ean**  
Lan eta Lan taldearen "Cinco mujeres con el mismo vestido" antzerki ama-

### Astigarraga

#### Antzerkia

**KULTUR-ETXEA**  
**Larunbata 8, 20:00etan**  
"Konpota" antzezlan eskainiko du Eneitz Artetxek. Sarrera, 6 euro. Euskaraz.

## Herritarren txokoa

#### Gure Esku dago

Gure Esku dago ekimenak ekainaren 8-an Durango eta Iruñea artean egingo duten giza katean Lasarte-Oriari dagokion kilometroan zure metroa erosi nahi baduzu, herriko taldeko kideak ostiralero Okendo plazan izango dira arratsaldeko 18:00etatik 21:00etara.

"Ez zaitetz lekuri gabe geratu Euskal Herriaren historiako une garrantzitsu eta berezi honetan, etorri bizkor!"

#### Megaba elkarte kide berrien bila

Lasarte-Oriako Megaba elkarteak jende gehiago behar du bere jarduna aurrera eramateko. Horregatik, herritarrek animatzen dituzte honetan parte hartzera. Horretarako [www.megaba.es](http://www.megaba.es) weban formulario bat bete edota 649 513102 telefonora deitu behar da. Urtean 10 euroko kuota ordaintzen dute.

#### Uztaro Kooperatiba

Uztaro Kooperatiba Lasarte-Orian martxan da. Kooperatibaren xedea janariaren kontsumo arduratsu bat izatearena da, bertakoa eta ekologikoa.

Lasarte-Oriako eremua elikatzen duen baratza, Beizaman kokatua dago. Astelehenero, Danok Kide elkarteak lokalean banatzen dira barazki eta frutak, garaian garaioak eta ekologikoak.

Kooperatiba honen proiektua gustuko dutenentzat ateak zabalik dituztela jakitera eman dute Uztarokoek. Informazio gehiago eskuratzeko [uztarolasarteoria@hotmail.com](mailto:uztarolasarteoria@hotmail.com) helbidean.

#### Erketz-eko taldeen entseguak

Erketz EDT eta Erketz-eko Lagunak taldeak lanean ari dira.

Erketz-eko Lagunak taldeak astear-tetan ditu saioak eta Erketz EDT-ko kideek, berri ostegunetan.

Entseguak Zumaburu ikastetxeko gimnasioan dira, 20:00etatik aurrera ohi bezala.

Era berean, 5 urtetik aurrerako haur eta gaztetxoek ere Erketz Txikin dantza egiteko aukera dute.

Azalpen edo informazio gehiago eskuratu nahi dutenek 635 746 028 telefono zenbakia jarri du eskura dantza taldeak.

#### Eskuitza

#### Eskertza

Lasarte-Oriako GURE ESKU DAGOKo lantalde osoaren partetik, eskerrik bero eta goxoenak eman nahi dizkiegu otsailaren 15eko jaialdian parte hartu zuten talde zein norbanako guztiei, ageriko zein ezkutuko lana egin zutenei, herriko plaza kolore andanaz betetzen lagundu zutenei, eskutik helduta bidean aurrera lehenengo urratsa gurekin eman zuten horiei guztiei. Besteak beste:

Lasarte-Oriako txistularien doinu alai, Amalurreko trikiti hotsei, Itaiako joaldunei, goizean goizeko Saustakoan adar eta txalaparta deari, hiru mendizaleen piper eta gatzari, Mikel eta txoznero guztien umoreari, Jalgiri, aniztasunaren eta ilusioaren murrak lanean aritu ziren Landaberriko Guraso Elkarteari, Zabaleta Auzolanen prestatasunari, Idoia Telleriaren flash argi bereziei, Iñigo Artolari, Porrotzen motibazio indarrari, Endika Gartziaren galtzetako lokatzari, Uztaroko otar ekologikoari, Kukukako dantzarien oin arinei, Telleriatarren beso indartsuei, Sorgin Dantzako zortzikote, gazte eta parte hartzaile finei,

laguntza handia eskaini zigun Erketz Dantza Taldeari, Felix Telleriaren txistu zorrotzari, Junkal Perezen laguntzeko gogoari, Xumelakoen ahots eztiari, Aitor Lasaren erromeriako saltsari, David eta Maider plazako errege erreginei, Enara eta Intzaren hutsune gabeko aurkezpenei, Arrieskalleta, Intza, Lasartearra eta Xirimiriko pintxo goxoen zapoerari, Labe-Goxoko ogi bikainari, Pasaiaiko ikastolari haur jolasen materialagatik, haurrak jolasean jarri zituzten zazpi begiraleei, Patxi, Ane eta Zigor bertsoari erri-ma-kateari, Xpression-en oihartzuna sorrarazteko gaitasunari, Isa, Edu eta Itsaso grabazio talde langileari, herria dantzan jarri zuen Itzartu taldeari, informazio gunean, apustuan eta kamisetan postuan lanean aritutako pazientziadunei, uneoro gure gorabeherak plazaratzen aritutako Txintxari eta Diario Vascori eta zailtasunak erraztasun bilakatu zituen Lasarte-Oriako Udalarari...

Eskerrik asko denei! Gure herriko katean ezinbesteko zaretelako, mila mila esker!

Lasarte-Oriako Gure Esku Dago lantaldea

**Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:** Geltoki kalea, 4 943 366858  
[txintxarri@txintxarri.info](mailto:txintxarri@txintxarri.info)

Bea Egizabala Ipuin kontalaria

# “Emakume burujabeak nahi ditugu”

Ipuinek rolen transmisioan umeengan duten eragina uste baino handiagoa dela defendatzen du ipuin kontalariak

*Jendartean hain errotuta dagoen printzesaren irudierekin amaitu behar dela esaten da egun berdintasunerako bidean pausoak emateko. Ipuinek belaunaldiz-belaunaldi transmititu dituzten baloreak aipatzen dira behin eta berriro baina zein neurritan eragiten dute? Bea Egizabal ipuin kontalariak argi dauka ipuin klasiko edo maitagarrien istorioek paper garrantzitsua izan dutela emakumearen irudi kolektiboan. Heziketara da giltza rol eta estereotipoak aldatzeko baina bidea oraindik luzea dela irizten du.*

Maider AZURMENDI

**M**anuel Lekuonan duela hilabete batzuk Okendo Zinema taldearen urteurrena zela eta, clown bidez hainbat eszena antzestu genituen umeen filmaren aurretik. Horietako batean, Cesar dorre batean bezala kokatu eta ni zaldiaren gainean joango banintz bezala hurbiltzen hasi nintzen bera salbatzera. Umeak oihuka hasi zitzaizkigun, alderantziz! alde-rantziz! Oholtzaren beste aldean jarri ginene eta umeak ozenago hasi ziren esaten horrela ezetz. Halako batean, ume batek esan zuen: mutilak salbatu behar du neska! eta gainontzekoek arrazoia eman zioten. Gauza asko aldatu dira, baina tamalez oraindik egoera horretan kokatu behar gara, emakumeak dira salbatuak izan behar direnak ezta gizonek printzipe ausartak”.

## Ipuinak sexistak dira?

Bai izan daitezke. Kontutan izanda zein gizartetan bizi garen gehiengo bat sexista da, genero rolak oso markatuta dituzte. Ipuin sexista esateko garaian, ipuin klasikoek ari garelako uste dugu baina egungo ipuinen artean ere aurki daitezke sexuen arteko rol eta estereotipoetara jotzen dutenak eta horrek esan nahi du ez ditugula oraindik gainditu generoen arteko desberdintasun, rol eta estereotipo horiek. Hor dago arazoa.

Hala balitz, kontutan izan behar dugu ipuin klasikoak anekdotikoak liritekeela gure jendartean. Hau da, balioko lukete esateko begira nola zen emakumearen papera garai batean...

## Zenbat eragiten dute ipuinek umeen gizarteratzean?

Eragina uste baino handiagoa da. Umeak sormenarekin lotzen dira normalean, hau da, erraz esaten dugu imajinario handia dutela baina hauek egiten dutena da euren errealita-

tea imitatu. Errealitate horretan dauden balore edo estereotipoak dira imitatzen dituztenak.

Horrekin esan nahi dut ipuina bai oso tresna baliagarria dela irudimena, sormena eta dibertimendurako baina tresna besterik ez. Familia, eskola, telebista, internet... eragin handiagoa dute.

## Ipuin klasikoetan jarri behar dugu diskriminazioari dago-kionez arreta?

Bai egun ipuin eskaintza zabalgia dago horregatik bereiztu behar ditugu egungo ipuinarik eta klasikoak edo maitagarrien istorioak. Izan ere, azken bi hauetan dago generoari dago-kion tratuaren kezka edo eztabaida handiena. Mota askotako diskriminazioak aurki daitezkeela aipatu beharoko gure ez soilik generoari dagozkionak.

Ahozkotasanetik datozen ipuinak dira, aspaldikoak eta bidaltzen dituzten mezuak oso errotuta dauzkagu. Bestalde, oso ondo egituraturako ipuinak dira, erakargarriak, entretenitzen dute, fantasia nahikoa dute. Zer dute txarra? Ez gatzoz eta ez gaude berdintasun gizarte batean eta hori islatzen dute primeran.

## Ipuin hauek alda daitezke?

Tradizioaren izenean zaindu behar omen ditugu ipuin hauek batzuen iritziz, beste batzuek diote eguneratu behar direla gizartea aldatu delako. Baina horren aurrean gogoeta eragin behar dugu, zein da jatorrizko bertsioa? Guri iritsi zaizkigunak askotan, ez dute zerikusirik jatorrizkoarekin. Lehenengo ipuin bilduma XVIII. mendekoa da baina aurrez bazeuden ahokotasun-ean. Txanogorritxu desberdina da Perraultek idatzi zuena, Disneyk zabaldu duena edo norberak etxean jaso duena.

Adibidez, Txanogorritxuren ehiztaria asmakizun bat da... garaiko testuinguruan ipuina berari beste zentzu bat emate-

ko. Errauskinerenean itzulpena egiterakoan zapata larruzkoa beharrean kristalezkoa zela jarri zen eta ondorioz, fantasia irudipen hori indartu da tradizio horretan. Egia da ere ipuin hauek aldatzen hasita, agian hobe dela zuzenean beste ipuin bat kontatzea.

Euskal tradizioan antzeko. Gurean emakumeek indarra dute lamiak, basanderea, Mari... Horiek ele zahar, mito edo ipuin egin dira eta berdin, ez dakizkigu jatorrizko istorioak. Bilduma egin dutenen bertsioak iritsi dira gurera, idatziz jarri zituztenena. Eskertu behar dugu egindako lana baina kontutan izan behar dugu ere gizonak eta apaizak zirela lan hau burutu zutenak.

Zergatik ipuin hauek bai eta beste batzuk ez dira iritsi? Egon badira historian ezkondu nahi ez zuten printzesak, printzipe beldurtiak, hiru senar nahi zituzten printzesa... Horiek ez dira erret aurkitzen.

## Ipuin hauetako printzesek zer adierazten dute?

Maitagarrien ipuinetan, printzesen papera aspergarria eta errepikorra da. Horrek min asko egin du eta egiten du. Emakumeak zori txarrean bizi dira, baina onak, goxoak, ulerkerak... dira ez dute ezer erabakitzen, eta salbatzea doazenean ere ez dute ia ezer egin. Txiki-txikitatik hauen eraginez jaso eta ulertzen dugu halako emakumeak izan behar garelako handitan saria jasotzeko, hau da, bizitza triste horretatik salbatuak izateko.

Nahiz eta “lo egon” gu hautatuko gaitu salbatzaileak eta dena konponduko du ipuinetan bezala. Jarrera hau behin ikusiko bagenu, tira baina gure ipuin tradizioan askotan errepikatzen den rola da eta gainera ez dugu soilik ipuinetan ikusten, gure eguneroko bizitzan, inguruan ditugun estereotipoak dira.

Ez ditugu printzesa sumisak nahi, emakume burujabeak nahi ditugu, aktiboak, bere bizitzan jabe direnak, erabakiak hartzeko eta maitasuna beste era batera bizi behar duten emakume eta gizonezkoak.

## Mutilei printzesen ipuinak ez zaizkie kontatzen...

Ez daude nesken ipuinak eta mutilen ipuinak, daude ipuinak. Bereizketa hori egiten



dugun neurrian, sakontzen goaz arazoan. Umearen identifikazio mailan ari gara eragiten. Egia da ere, ipuin hauen arabera gizona beti izan behar dela ausarta eta hori presio bat ere bada. Baina esango nuke rol deserosoena emakumearena dela beti.

## Neskek printzesak eta gizonak super-heroiak? Aldatu da hau?

Aldaketa gertatu da gizartea aldatzen ari delako baina oso mantsoa da eta asko borrokatu beharrekoa. Gero eta jende gehiago dago ez dagoena prest tokatu zaion rolean egoteko. Baimenduta dute neskek gizonezkoen esparruak izan direnatan sartzen hau da, neskek futboleko badaude baina preziatuagoa da gizonetakoarena, emakumeei hor sartzen uztea ondo ikusita dago baina mutila nesken rolean nahi badu sartu, zaintzan etab. hori gaizki ikusita dagoenez, ez dakit oraindik nahikoa baimentzen den.

Askotan nahi dugu hitz egin bi genero egongo ez baliar bezala, baina badaude.

Errealitatea aldatu da eta gu ez gara printzesa horiek baina zorientasunaren eredu bezala maitasun erromantiko hori dago oraindik ideario kolektiboan. Maitasuna bai baina zer gaude prest egiteko kanpoko maitasun hori lortzeko? Oso lotuta dago klasikoetatik dator-kigunarekin.

## Ipuin kontalarien artean badago eztabaida generoaren tratuaren?

Bai noski, folklorea, bertso-tan... esparru guztietan dagoen eztabaida da gizarte patriarkal batean gaude eta horrek sortzen du hika mika eroso dauden artean, eta eroso ez dauden artean. Tradizioa gure altxorra dela esaten dutenei, benetako bertsioak ezagutu nahi ditudala erantzuten diet.

## Gurasoek arreta jarri behar dute gai honetan...

Bai baina baita jostailuekin, telebista saioekin... Ipuinak tresna bat dira soilik eta ezin da ipuinen bitartez, jendarte, errealitate oso bat aldatu. Baina ipuinak aldatzea errazagoa denez, haz gaitzen non-baitetik!

Niretzat estereotipoak apurtzea da giltza, nire kontakizunetan gustatzen zait hori egitea, ez da ipuin osoa aldatu behar baina autobus gidaria ez da zertan gizona izan behar, okina, iturgina, alkatea... emakumea izan daiteke.

## Belaunaldi berrietan aldaketarik nabaritzen da?

Urte askotan izango da Martxoaren 8aren beharra. Manuel Lekuonan gertatutakoa da horren adierazgarria. Hala ere, aurrerapausoak eman direla uste dut. Feminismoaren borroka gero eta zabalduagoa eta sendoagoa dela iruditzen zait, emakumeak prestatuagoak gaude intelektualki. Jendartea guretzat aldatu da eta baliatu gara baliabide berriez baina kontra egiten dutenak ere eszenatoki berean ditugu.